

**Leioa** berdintasunetik **!**  
desde la igualdad **!**

## PROPOSAMENAK

Leioa, 2018.



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



Ondokoen partaidetzarekin:





# Aurkibidea

<b>1. - Dokumentuaren laburpena</b>	<b>5</b>
<b>2. - Proposamenen taulak gaika</b>	<b>8</b>
1. ESPAZI PUBLIKOA	8
2. EKIPAMENDUAK	13
3. MUGIKORTASUNA	16
4. KOMERTZIOAK	21
5. ETXEBIZITZA	22
6. SEGURTASUNA	25
7. PAISAIA ETA INGURUAREKIN HARREMANA	27
8. PARTE HARTZEA	30



# 4.

## Propuestas de actuación

Behin diagnosiaren prozesua bukatu ondoren, eta ondorio teknikoak zein herritarrak jaso ostean, proposamenak osatu ditugu Leioako HAPOan genero ikuspegia txertatzeko. Proposamen horiek ondorengo gai nagusietan bildu ditugu:

1. Espazio publikoa.
2. Ekipamenduak.
3. Mugikortasuna.
4. Merkataritza.
5. Etxebizitza.
6. Segurtasuna.
7. Inguruarekin harremana.
8. Parte-hartzea.

Ondorengo puntuetan lan honetan biltzen diren proposamenen laburpena egin dugu. Hauek lirateke Leioaren erronkak genero ikuspegia hirigintzan txertatzeko hemendik aurrera:


- Kalitatezko espazio zentrala(k) sortzea udal identitatearen erakusleak izango direnak eta herritar ororen elkargunea izango dena. Toki segurua(k), irisgarria(k) eta konplexua(k) hiritar ororen beharretara egokituak daudenak.
- Auzoetako espazio publikoak egokitu kalitatezko elkarguneak sortzeko eskala hurbilean.

- Errepide gaineko espazio publikoaren permeabilitatea hobetu. Beste erabilera posibleak aztertu eta inguru atseginagoa eta bizigarriagoa bilakatu.
- Hezkuntzako eraikinen kokapen berria birplanteatu eta konponbide irisgarriak bilatu erabiltzaileak oinez, bizikletaz eta garraio publikoan heltzeko aukera izan dezaten, gazteenen autonomia indartzeko eta zaintza lanen gainkargak txikitzeko.
- Kiroldegiaren kokapen berria birplanteatu eta aukera irisgarriak eta hurbilak bilatu gizarte osoarentzat. Erdigunean kokatzea posible ez balitz, irisgarritasuna bermatu beharko da garraio publikoarekin (auzo guztiak konektatuko dituen eta ordutegi maiztasun handia duena); espazio publikoen kalitatezko sare egokituarekin (ranpa mekanikoekin, atsedenerako tarteko txokoekin, itzalekin, gune estaliek, iturriekin eta espaloi zabalekin eta eremu bizi eta seguruetatik igaroko direnak).
- UPVko Kanpusarekin harreman berria sustatu.
- Oinezko bideen eta elkarguneen irisgarritasuna hobetu.
- Auzo guztiak modu efektiboan konektatuko dituen autobusen sarea hobetu.
- Bidegorrien sarea egokitu eta handitu bizikletaren erabilera indartzeko aisialdiaz haratago.
- Denda txikien sarea egokortu eta merkatal zentru handien igoera mugatu.
- Adinekoentzat etxebizitza alternatiba kogestionatuak eskaini, haien bizitza autonomia luzatzeko zaintza kolektiboari esker.
- Neurriak hartu erabilera bakarreko etxebizitza eremuen efektu negatiboak txikitzeko.
- Etxebizitza bloke zaharren irisgarritasuna eta mantentze egokia bermatu udalerraren irisgarritasun maila eta egoera estetikoa hobetzeko.
- Segurtasunaren pertzepzioa hobetu egiturazko eskuhartzeen bidez, esaterako, erabilera bakarreko eremuak ekiditeko neurriak, bazter izkutuak edo ilunak kentzeko neurriak, ibilbide nagusien ikusgaitasuna eta argiztapen egokia bermatuko duten neurriak, etab.
- Udalerrria bere inguru hurbil naturalarekin duen harremana indartu ibilbideen permeabilitatea hobetzearekin batera. Itsasadarrarekin eta landa eremuekin konektatu.
- Eremu industrialen eta eremu urbanoen arteko lotuneak landu.
- Politika publikoen gardentasuna handitu eta herritarrak botere erabakietan inplikatu.

Ondoren, tauletan jaso ditugu prozesuko proposamenak. Esan bezala, goiko zortzi gaien arabera antolatu ditugu eta udalerrri osorako proposamen orokorrak zein auzokakoak biltzen dituzte.

Kopurua eta zehaztasun maila prozesuaren parte hartzearen arabekoak dira, ezin izan du auzo guztietako pertsonak bildu eta, beraz, HAPOko parte hartze lanak informazio hau sakondu beharko du.

Taulen eskema:



**X.x AUZOETARAKO PROPOSAMENAK**

Gaiaren azalpen orokorra

**Proposamenak**  
Deskribapena

Lekuaren edo ortoargazkiaren irudia

Hurrengo orrian jarraitzen du

# 1

## ESPAZIO PUBLIKOA

Herritargoaren eguneroko bizitza hobetzeko ezinbestekoa da espazio publikoen kalitatezko sarea osatzea eskala guztietan; pertsonen menpekotasun maila eta zaintza lanen beharra txikitzen du; mugikortasun urriko pertsonen isolamendua saihesten du; elkarbizitza sustatzen du; inguruaren pertzepzioa hobetzen du eta gizarte kohesioa eta partaidetza hobetzen du.

Espazio publikak egokiak izan behar dira eskala guztietan (lokalean, udalerrri osokoa eta metropolitarran) eta orden horretan landu behar dira espazio, eremu eta zerbitzu guztien irisgarritasuna bermatu ahal izateko.

Zentzu horretan, arlo honetan identifikatu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Espazio zentral baten gabezia, udalerrriaren identitatearen erakusle eta elkargune nagusi sinbolikoa izango dena.
- Auzoetan hurbileko kalitatezko espazio publikoen gabezia.
- "Avanzada" k sortzen duen muga gainditzeko zailtasunak.
- Argiztapen falta.
- Irisgarritasun falta kale izendegi ulergaitzaren ondorioz.

### **Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:**

1. Plaza nagusi bat egokitu, sortu edo/eta kudeatu. Elkarbizitzarako espazio nagusi bat indar sinboliko handiarekin eta gizartearen aniztasunaren erakuslea izango dena.
2. Kale izendegia egokitu pertsona ororen irisgarritasun kognitiboa ziurtatzeko.
3. Irisgarritasun orokorra hobetu eta jolas eremu gehiago jarri mugikortasun urriko pertsonentzat egokituak eta seinale egokiekin.
4. Auzo guztietan gertuko plazak sortu edo egokitu kalitatezko espazioak eskala guztietara zabaltzeko.
5. Ume eta gazteentzako leku erakargarriak eta seguruak sortu.
6. Umeen jolas lekuetarako material naturalak erabiltzea eta jolas abstraktoen erabilera sustatu.
7. Gune estali gehiago jarri eta dagoena hobetu.
8. Hiri baratzak integratu zenbait parke eta parterretan.
9. Plazen diseinua arautu espazio naturalak integratzearen beharra ziurtatzeko.



10. Aldi baterako erabilerak kudeatu orube hutsetan. (Ikusi "esto no es un solar" proiektua, Zaragoza)

11. Espazio publikoen argiztapena hobetu.

12. Kalitatezko espazio publikoak diseinatzeko ildoak zehaztu eta aplikatu, ondoko premisen arabera: oinezkoen ibilbide zabalen beharra atsedenerako eta egoteko leku hurbilekin pertsona ororen irisgarritasuna eta mugikortasun aukerak bermatzeko(mugikortasun urriko pertsonak barne), begetazioaren beharra, itzalak egotea ibilbideetan eta egoteko lekuetan, argiztapen egokia jartzea, iturriak egotea, ikusgaitasuna bermatzea ibilbideetan, mahaiak eta aulkiak jartzea zenbait txokotan, gunee estaliak egokitzea, etab.

## 1.1

# Ipar Elexalde

Udalerriko erdialdea da eta bertan daude Udaletxea, zenbait udal bulego, Kultur Leioa eta udaleko hainbat zerbitzu. Kultur Leioa eta ondoko bi plazak udalerriko erdigunea izateko asmoarekin diseinatu ziren, erreferenteak izateko, baina ez dute helburua bete.

### **Propuestas:**

**1.** Kultur egitarau zabala osatu gizarte osoa erakarriko duena.

**2.** Errekalde eta J.F. Aketxe plazak eraldatuko dituen proiektua martxan jarri erreferentziazko espazioa izateko.

### Errekalde:

-Plazako kota aldaketak sortzen duen muga ezabatzeko proiektua, aldapekin, gradekin eta eskilarekin. (ortoargazkiko 2 eremua).

-Simetria apurto askotariko erabilerak sartzeko:

- Umeen jolasak.
- Eremu begetalak.
- Itzal eremuak.
- Luzerako bankuak taldean esertzeko.
- Mahaiak eta aulkiak (edo bankuak) askotariko erabileretarako.
- Bankuak eseritzeko edo etzanda egoteko balio dezaketenak.

# 1.1

## Ipar Elexalde

- Eremu lasaiak.

(ortoargazkiko 1 eremua)

-Belar eremu egokituak umetzako jolas abstraktoekin material naturalekin eginak (enborrak, harriak, kautxo naturalak, askotariko ehundurekin, hala nola, zuhaitz azala, harea edo harrizkak, etab.) (ortoargazkiko 1 eremua).

-Jolas eremuak kota aldaketekin. (ortoargazkiko 1 eremua).

-Ekitaldiantzako eta eszenatokiarentzako gune zabala Kultur ondoan. (ortoargazkiko 3 eremua).


### Aketxe:

-Parre batzuk kendu edo 0 kotara jeitsi irisgarriak izateko, eta erabilerak eman. Aukerak aztertu, esaterako, alde bakarra jeistea eta malda eremuak sortzea.

-Plazaren alde bat indartu fluxurako eta jolaserako (ortoargazkiko 4 eremua) eta bestea eremu lasa bezala bankuekin eta mahaiekin (ortoargazkiko 5 eremua).

**3.** Boulevardreko estalkia egokitu ura sartu ez dadin haizeak jotzen duenean. (ortoargazkiko 6 eremua).

**4.** Aldi baterako erabilerak programatu "avanzada" gaineko Boulevardrean permeabilitatea hobetzeko. Auto bideak itxi kirol eta kultur erabilererarako.



## 1.2

# Hego Elexalde

Eremu konplexua da. Leioako erdigunea da eta bizitasun handikoa (komertzio txikien inguruan eta kiroldegian bereziki), baina, aldi berean, hiri espazioek gabezi asko dituzte, irisgarritasun falta, kalitatezko elkarguneen falta, eraikin zaharkituak daude, etab.

\*Inguru honetako esku-hartzeek biztanle gehienengan eragina dute.


### Proposamenak:

(Edozein proposamenen aurretik diagnostikoak aukera guztiak aztertu beharko ditu eta parte hartze herritarren bidez landu beharko da).

-Beheko ortoargazkian seinalatzen den eremua oinezkoentzat egokitzeko aukerak aztertu, txikienen autonomia handitzeko eskolarako bidean, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna hobetzeko, erdigunea bizigarriagoa eta atseginoago egiteko, eta kutsadura akustikoa eta airearen kalitatea hobetzeko, besteak beste.

Tipologia posible batzuk:

- Gune mistoak: oinezko bideekin, bidegorriekin, oinezkoen lehentasunezko bide konpartituak, aldi baterako aparkalekuak, eta egoiliarrentzako aparkalekuak.
- Espazio biziak, aniztasun handikoak, seguruak eta atseginak proposamen orokorren 12. Puntuak zehaztasunei jarraituz.
- 0 kotako kale tipologiak (eskaloirik gabekoak) irisgarriak izateko, eta zoladura egokituekin itsuentzat.



## 1.3

### Pinueta

Ororkorreen, kotxeen presentzia gehiegizkoa da; haiek hartzen dute kaleen azalerarik handiena eta kaleak hobetzeko aukerak mugatzen dituzte. Oinezko bideak estuak dira eta zenbait kasutan kotxeen aparkalekuek oztopatzen dituzte.

**Proposamenak:**

- Kotxeen erraiak txikitu.
- Espaloiak handitu eta egoteko guneak jarri.
- Garbitasuna eta mantenua hobetu.
- Errai arteko parterreak kendu eta azalera hori espaloiei gehitu, txoko mistoekin: begetalak eta egotekoak.

## 1.4

### Udondo Aketxe- Kandela Zubieta- Sabino Arana

Sabino Arana erdialdea konektatzen du metro geltokiarekin. Beheko eremuaren eraldaketa oinezkoa bihurtzeko pauso positiboa izan da espazio publikoa bizigarriagoa eta segururagoa egiteko, baina bizitasun eta komertzio falta dago; egoera hobetu daiteke.

Eremu hanen eraldaketa tranbiaren zain egon da azken urteetan, baina egoera berriarekin aukera berriak bilatu behar dira kontuan hartuko dutenak eremuaren izaera konplexua: batetik, lotunea delako eta bestetik eskala lokaleko beharrak asetu behar direlako.

**Proposamenak:**

Hiri espazioen gabeziarik ez duen arren, beste auzo batzuk ez bezala, bere inguruarekin duen konexioa hobetu beharra dago oinezko bide jarraien espazio publikoen sarearen bidez, segurtasunaren bidez eta irisgarritasunaren bidez. Bereziki, metroaren inguruko lotuneetan.

# 2

## EKIPAMENDUAK

Ekipamenduek askotariko zerbitzuak eskaini behar dituzte herritar guztien bizi baldintzak hobetzeko. Zerbitzuak eskura izatea zaintza lanen kalitatea hobetzea eta lanak erraztea dakar, norberarenak eta besteenak, eta, gainera, gune garrantzitsuak dira elkarbizitzarako, harremanetarako, ikasteko eta aisialdirako. Udalerriko jardueren zati handia hartzen dute bere baitan eta hiri sarearen barruan kokapen egokia izan ezkerro gaitasuna dute kaleak jendez betetzeko eta seguruagoak eta bizigarriagoak bilakatzeko.

Ekipamenduen eskaintza, espazio publikoekin batera, udalerraren eskala guztiei erantzun behar die: tokiko eskala, udalerriko eskala eta eskala metropolitarra. Eskala handienek ezin dituzte tokiko beharrak ordezkatu, hurbileko zerbitzuak eskaintzea premiazoak baita irisgarritasun unibertsala bermatzeko eta autonomia handitzeko.

Edozein kasutan, eskaintza zabala irisgarritasunarekin eta kalitatezko garraio publikoaren sarearekin elkarelikatu behar dira.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Auzo zerbitzuetan gabeziak.
- Kiroldegiaren kokapenerako proposamen berriak irisgarritasun arazoak handitzen ditu.
- Hezkuntza zentruen kokapenerako proposamen berriak irisgarritasun arazoak handitzen ditu, umeen menpekotasuna handitzen du eta zaintza lanen beharra handitzen du horrek dakarren lanen gainkargarekin.

### Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:

1. HAPO berriak auzoetako zerbitzuak orekatu beharko ditu kokapenari eta tipologiari dagokionez, hau da, ekipamenduen sarea deszentralizatu behar da herritar guztiei babesa emateko helburuarekin. Eta deszentralizazio posible ez den kasuetarako (inbertsio maila altuagatik edo espazio faltagatik), garraio publikoaren sarea indartu beharko da ordutegi eta maiztasun aproposekin, eta oinezkoen ibilbideen irisgarritasuna bermatu.

2. Kiroldegiaren kokapenerako proposamena birplanteatu gizarte osoaren beharrak integartzeko eta kokapen posibleen irisgarritasun aukerak aztertzeko. Egun mahai gainean dagoen proposamenak adinekoen eta mugirtasun urriko pertsonen irisgarritasun aukerak murrizten ditu malda handiak direla eta. Alde horretatik, egungo kiroldegiak irisgarritasun aukera egokiak ditu.

3. EHUko ikasleentzako egoitza eraiki kanpusarekin dagoen harremana



handitzeko eta haren jarduerak herrian isla izan dezan.

4. Kudeaketarako akordio posibleak bilatu EHUrekin kanpuseko instalazioak erabili ahal izateko (aldi baterako erabilerak ala data konkretuetarako).

5. Udalerriko erabilerarik gabeko espazioak zerrendatu eta erabilera berrien aukerak aztertu (musika entzugurako, antzerkirako, erabilera askotako espazioak...). Aztertu kudeaketa elkarbanatuaren aukera udalaren eta bizilagunen artean.

## 2.1

# Hego Elixalde

Eremu honetan Sakoneta kirolgunea dago. Instalazio anitzak ditu eta jende fluxu handia sortzen du bere kokapen hurbilari eta zentralari esker.

Egun, kiroldegiaren kokapena aldatzeko proposamena mahai gainean dago. Kiroldegi berria Pinosolon eraikitzea aurre ikusten da, baina proposamena kezka handiz hartu dute zenbait herritarrek irisgarritasun arazoak sortuko dituelakoan.

### **Proposamenak:**

**1.** Kokapen berria beraztertu gizarte osoaren irisgarritasun aukerak kontuan hartuz. Bereziki, aztertu behar da eremu berriaren segurtasun eza erabilera nahasketarik ez dagoelako eta aparkalekuetan ikusgaitasun gutxiko eremu asko daudelako.

**2.** Proposamena aurrera badao:

- Inguruko ibilbideak egokitu atsedenerako tarteko txokoekin. Hiri altzari egokiak jarri: bankuak, itzalak, eskudelak, argiztapen egokia eta aparkalekuen murrizketa ibilbidean ikusgaitasuna hobetzeko.
- Inguruan erabilera anitzak integratzeko aukerak aztertu; espazio publikoak elkartzeko edo bestelako zerbitzuak.

## 2.2

# Lamiako-Txopoeta

Kultur eta aisialdi ekipamenduen artean Adineko Zentroa dute egitarau zabalarekin eta Kulturgunea, besteak beste. Balorazioa positiboa da eta beraz, sortzen diren eskaerak gabeziekin baino zerikusi gehiago dute aukerak eta baliabideak aprobetxatzearekin.

**Proposamenak:**

Antzoki Zaharra eraberritzea kultura erabileretarako, entzegu lokaletarako, etab.

## 2.3

# Pinueta

Kultur aretoa eskasa da eta gazteentzako eskaintza mugatua.

**Proposamena:**

Gazteentzako espazioen eta ekintzen eskaintza zabaldu.

# 3

## MUGIKORTASUNA

Aurreko mendeko hirigintza ereduak garraio pribatua lehenetsi du oinezkoak bigarren mailan utziz eta oztopoz betetako eta segurtasunik gabeko inguru deseroso batean bizitzera behartuz. Gainera, kontuan hartu behar dugu gizartearen portzentaia txiki batek soilik duela autoa edo gidatzeko aukera eta, beraz, garraio pribatua lehenestea desabantaila handiak sortzen dituela gizartearen gehiengoarentzat.

Izakiok beharra dugu oinez ibiltzeko eta jendea ikusteko eta hiriaren ardua da elkargune hauek eskaintzea. Hiri osasuntsu batean espazio publikoa elkargune nagusia da, elkarbizitzarako eta harremantzeko espazioa; eta, hortaz, lehenetsunak aldatu behar dira pertsonak erdigunean jartzeko eta gure hiriak gizarte osasuntsu eta biziaren isla izan dadin.

Trafikoaren beste ondorio latza ingurugiroaren hondatzea da. Airearen kutsadurak eta kutsadura akustikoak gure osasuna kaltetzen dute eta neurriak hartzea premiazkoa da. Konponbideen bilaketan inplikazioa, mimoa eta irudimena beharrezkoak dira, baina ez dugu ezer asmatu behar. Asko dira ereduak erakusten dutenak beste hiri ereduak posible direla, beharrezkoak direla eta, nola ez, pertsona ororen bizi kalitatea hobetzen dutela. Kale bizigarriak egitea posible da eta, gainera, eragin positiboa du tokiko ekonomian Europa mailako eredu askok erakusten duten bezala.

Heldu behar diogu mugikortasun unibertsala bermatzeari eta zerbitzuak eskuratzeko aukera berdintasuna eskaintzearen ardurari. Hiri biztanleria osoarentzat eskuragarriagoa eta irisgarriagoa bilakatu behar dugu, kalea bizigarriagoak egin, atseginagoak, eta ingurugiroaren zaintza bultzatuko duen eredu jarraituz bizi baldintzak hobetzeko.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Hiri barneko garraio publikoaren gabeziak.
- Garraio publikorako txartel bateratuaren eta bakarraren beharra.
- Konexio falta Leioako kanpusaren eta metroaren artean.
- Gabeziak bidegorrien sarean. Ez du aukera integralik eskaintzen bizikletaren eguneroko erabilera bultzatzeko garraio bezala.

**Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:**

1. Auzoen arteko konexioa hobetu autobus gehiagorekin eta sare osoagoarekin, geltokien arteko distantzia txikiagoekin, maiztasun handiagoarekin, informazio panel irisgarriekin eta ordutegi zabalekin.



2. Metroa eta erdigunearen arteko konexioa hobetu autobusen maiztasuna handituz, informazio panel irisgarriekin eta ordutegi zabalekin.
3. Garraio guztientzako txartel bateratua lortu.
4. Udallerriaren eta Kanpusaren arteko konexio hobetu. Alternatiben azterketa egin tranbia ordezkatzeko.
5. Etenik gabeko bidegorrien sare segurua eta erabilgarria osatu, aukera emango duena bizikleta garraio bezala egunerokotasunean erabiltzeko.
6. Getxo Bizirekin akordioak bilatu udal-bizikleten sistema elkarbanatu ahal izateko, eta Getxoren sistema bera erabili aparkalekuentzat non bizikleta publiko zein pribatuak utzi ahal diren.

## 3.1

# Ipar Elexalde

“Avanzada” gaineko boulevarra muga sortzen du Ipar-Elexalderen artean eta Hego-Elexalderen artean, hau da, zentroa bitan banatzen du eta alde bietako ekipamendu eta espazio publikoen arteko permeabilitatea zailtzen du.

### **Proposamenak:**

Trafikoa murrizteko estrategiak aztertu, esaterako:

- Errail bakarra utzi norabide bakoitzean, autobus geralekuak barne, trafikoaren abiadura moteltzeko eta oinezkoentzat seguruagoa izateko.
- Errail bat soilik autobusetarako utzi, haien fluxua hobetzeko.
- Ikusi 1 puntua (Espazio publikoak) eta aldi baterako ekintzen proposamena.

## 3.2

### Hego-Elexalde

Leioako zentroa da, ekipamendu eta komertzio gune handienak ditu, eta oinezko bide egokien indartzea garrantzitsua da.

**Proposamena:**

Ikusi 1.2 proposamena "Espazio publikoak" atalean.

## 3.3

### Peruri

Leioako landa eremuetako bat da, hiri eremutik urrun eta ibilbide luzeekin erdiguneraino.

**Proposamena:**

Neurriak hartu ibilbideen (lotuneen) tarteko guneetan erabilera bakarreko eremuak eraldatzeko.

Bidegorriak edo/eta errai konpartituak jarri seinale egokiekin.

Landa "taxi"-en sistema erabiltzeko aukera aztertu eta kudeatu bazterretako auzoetarako.

## 3.4

# Santi Mami

Leioako landa eremuetako bat da, hiri eremutik urrun eta ibilbide luzeekin erdialderaino.

### **Proposamena:**

Landa "taxi"-en sistema erabiltzeko aukera aztertu eta kudeatu bazterretako auzoetarako.

## 3.5

# Pinueta

Pinueta Getxo eta Leioa arteko mugan kokatzen da eta hurbiltasunagatik auzokide askok harreman handiagoa dute Getxorekin Leioako erdialdearekin baino. Egoera honek zerbitzuen kudeaketa konplexua du garraio publikoari dagokionean desplazamendu asko beste udalerraren barruan baitaude.

Bestalde, kotxeen presentzia handiak oinezko bideak oztopatzen ditu aparkaleku asko dagoelako eta espaloiak estuak direlako. Kaleek ez dute harremanetarako espazio egokirik eskaintzen eta egoera honek talka egiten du kotxeen aparkalekuen behararekin.

### **Proposamenak:**

- Errailen zabalera murriztu espaloiak handitzeko.
- Oinezkoen bide nagusiak indartu espaloi abalekin, bankuekin, itzalarekin, begetazioarekin, iturriekin eta argiztapen egokiarekin.
- Errailen arteko parterreak kendu eta eraikin ondoko espaloiak handitu.
- Autobusen zerbitzua indartu erdigunearekin eta beste auzoekin konexioa hobetzeko.
- Kalitatezko bidegorrien sarea osatu gainerako auzoekin eta Getxorekin lotura errazteko. (Ikusi 6. Proposamen orokorra).

\*Aparkalekuen arazoa espazio publikoaren hausnarketarekin batera edo ostean egin beharko da, eta barnebildu beharko ditu auzokide guztien beharren diagnostia eta garraio publikoaren, bidegorrien eta oinezkoen ibilbideen egokitasun mailaren azterketa.

## 3.6

# Ondiz

Ondiz auzoa erdigunearen gainean kokatua dago. Auzo erdilantatiarra da eta Txorierri auzoarekin lotunea osatzen du. Erdigunetik oso aldendua ez egon arren urrun somatzen da ibilbideen ezaugarrien ondorioz: errepide huts luzeak eraikinik gabekoak, tarteko aparkaleku handia, gaueko argiztapenaren gabeziak eta auzo barruko oinezko bide etenak. Guzti honek eragiten du ibilbide ez seguru bezala ulertzea eta irisgarritasuna murriztea.

**Proposamenak:**

- Ibilbidearen argiztapena hobetzea.
- Garraio publikoaren sarea indartzea eta hobetzea.
- Oinezkoen bideak egokitzea eta seinale egokiak jartzea.

# 4

## KOMERTZIOAK

Komertzio txikia herri bizien euskarrietako bat da espazio publikoen eta ekipanduen sarearekin batera. Erabilera nahasketa eskaintzen dute ordutegi zabalean zehar eta pertsonen presentzia handitzen dute, ondorioz, kaleak betetzen dira eta segurtasuna handitzen da. Gainera, zerbitzu hurbila eta irisgarria eskaintzen dute eta bizilagun askoren egunerokoa errazten dute, zaintza lanen beharra murrizten dute eta garraio pribatuarekiko menpekotasuna txikitzen dute honek dakarren ingurugiroaren zaintzarekin eta bizi kalitatearen hobekuntzarekin. Ordea, hurbileko eredu honen onurak ez dira nahikoak izan merkatal gune handien mehatxuari aurre egiteko.

Leioako komertzio txikien egoera arazo orokortu baten isla dira, eta premiazkoa da konponbideak bilatzea. Txikienek arazoak dituzte aurre egiteko merkatal gune handien prezioei, eskaintzei eta ordutegiei, eta askok itxi behar izan dute egoera honen ondorioz. Baina denda txikien eskasiak ez da soilik merkatarien ardura eta arazoa. Hiri barruko denda txikien sareak hurbiltasuneko sarea osatzen du eta onura handiak eskaintzen dizkio Leioako bizi kalitateari. Hortaz, instituzioak ere ardura hartu behar du denda txikiak dinamizatzeko, irisgarritasuna bermatuko duen egokitzapenak bultzatzeko eta merkatal gune handien presentzia murrizteko.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Komertzio txikien kopurua jeitsi da eta egungoak mantentzeko arazoak dituzte.
- Zenbait denda ez dira irisgarriak.
- Merkatal zentru handien saturazioa dago.

### Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:

1. Hurbileko komertzio txikia bultzatu.
2. Merkatal gune handientzako atzerapena, HAPO berriaren proposamenak egon arte. Gaur egungo saturazioak kalte handiak eragin baititu tokian tokiko eskalan.

# 5

## ETXEBIZITZA

Etxebizitza hiri sarearen beste euskarrietako bat da, eta aukera eman dezakete askotariko familia ereduari eta harreman mota anitzek lekua egiteko. Arautik kanpo geratzen diren familia ereduak bestelako beharrak izan ditzakete diseinuari eta antolaketari dagokionez, baina, orokorrean, egungo etxebizitza diseinuek ez diete modu egokian erantzuten oraindik ere.

Etxebizitza barruko espazioen sinplifikazioak betebeharren eta harremanen estereotipazioa ekarri du gelen espezializazioarekin batera. Hau da, antolaketa orokorrak indartu dezake rolen eta estereotipo sexisten betiketzea, eta beharrezkoa da egoera eraldatzeko neurriak hartzea.

Sinplifikazioaren logika honen isla hiri mailan ere aurkitzen dugu eremuen zonifikazioan, eta ondorioak larriak dira. Erabilera bakarreko eremu zabalek ibilbide handiak egitera behartzen gaitu eta horrek irisgarritasun oztopo handiak sortzen ditu, bereziki mugikortasun urriko pertsonentzat edo menpekoentzat eta haien zaintza lanak egiten dituztenentzat. Beste ondorio batzuk dira leku batetik bestera joateko galtzen dugun denbora, zaintzaileek aisialdiaz disfrutatzeke dituzten aukeren gutxitzea eta mugikortasun urriko pertsonen isolamendua. Egoera eraldatzeko beharrezkoa da hiri eta etxebizitza eredu berriak aukeratzea, erabilera anitzak edukiko dituztenak eta kale biziak sortuko dituztenak, gizarte osoaren oinarritzko beharrei erantzun egokiak emateko.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Etxebizitza zaharrak irisgarritasunik gabekoak eta egoera estetiko txarretan.
- Etxebizitza monofuntzionalak, kalera ematen duten dendarik edo bestelako erabilerarik gabekoak. Zaintza lanak oztopatzen dituzte eta autoarekiko menpekotasuna handitzen dute.
- Familia bakarreko etxebizitza monofuntzionalak, kalera ematen duten dendarik edo bestelako erabilerarik gabekoak. Zaintza lanak oztopatzen dituzte eta autoarekiko menpekotasuna handitzen dute.
- Bestelako etxebizitza ereduaren gabezia, esaterako, etxebizitza kolaboratiboak adinekoentzat haien autonomia hobetzeko eta isolamendua txikitzeko.

### Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:

1. Unibertsitateko ikasleei zuzndutako etxebizitzak eskaini udalerrian gizarte lanak egitearen truke. Unibertsitatearekin hitzarmena adostu Bilboko ereduari jarraituz.
2. Etxebizitza berrientzako atzerapena. Prozesu parte hartzailea burutu

etxebizitza beharraz hausnartzeko.

3. Etxebizitza bloke zaharren eraberritzea sustatu eta kudeatu irisgarritasuna bermatzeko eta udalerriko itxura hobetzeko.

4. Etxebizitza tipologiak arautu familia eredu anitzak eta genero ikuspegia integratu ditzaten eraikuntza berrietan.

5. Etxebizitza kolektiboen aukerak aztertu herritarrekin batera erdiko epean konponbide zehatzak eman ahal izateko. Ikusi: cohousing.

## 5.1

# Hego elexalde

Eremu honetan hiri defizit handia dago, hein handi batean hiri diseinuaren eta eraikin zaharren ondorioz.

**Proposamena:**

Diru laguntzak eman eraikinen irisgarritasuna hobetzeko eta eraberritze obrak sustatzeko.

## 5.2

# Pinueta

Eremu honetan hiri defizit handia dago, hein handi batean hiri diseinuaren eta eraikin zaharren ondorioz.

**Proposamena:**

Diru laguntzak eman eraikinen irisgarritasuna hobetzeko eta eraberritze obrak sustatzeko.

## 5.3

# Lamiako

Adinekoen etxebizitza kolektiboen beharra dago (Cohousing), haien autonomia maila hobetzeko eta luzatzeko eta isolamendua ekiditzeko. Bizitza faseei egokitzen diren etxebizitza tipologia anitzak behar dira eta adinekoen beharrak hau sustatzeko pausu garrantzitsua da.

### **Proposamenak:**

-Elkarrizketarako mahaia osatu interesa duten elkarten eta instituzioen artean proiektuaren ezaugarriak adosteko, epeak finkatzeko, kudeaketa elkarbanatua zehazteko edota espazioaren funtzionamendua hobetuko duten beste gai garrantzitsuak adosteko.

-Konponbide egingarriak eskaini erdiko epean eta luzera begira. Ulertu behar da eskatzaileek duten azkartasunaren premia, adinekoen bizitza denbora mugatuagoa baita.



# 6

## SEGURTASUNA

Segurtasuna eta horren pertzepzioa ezin da neurtu soilik delinkuentziarren eta biolentzia matxistaren datu kuantitatiboekin. Historian zehar emakumeok pairatu dugun biolentzia, berdin gainerako pertsonak sufritu dutena genero eta sexualitate aniztasunagatik, arrazagatik, etniagatik edo klase ekonomikoagatik, gure imaginario kolektiboa osatzen du eta mugitzeko askatasuna mugatzen digu. Hortaz, segurtasuna aipatzen dugunean, gizarte kolektibo baztertuenei ukatu zaizkien espazio, erabilera eta presentzia sinbolikoak ari gara.

Beldurra, kontrol mekanismoa izanik, leku hutsek transmititzen diguten segurtasun ezan topatzen dugu. Gure pertzepzioek ingururaren ezaugarrien ondorioa dira, bai espazioen araberakoak eta bai gizartearen araberakoak.

Herri segurua herri osasuntsu eta atsegina da eguneroko bizitzarako, herri bizia kale beteekin eta bizilagunentzat askotariko aukerak eskaintzen dituen. Herri inklusiboak osatzeko, eguneroko bizitza errazten duten kalitatezko espazioak sortu behar ditugu, espazio eta baliabideen irisgarritasuna bermatzen dutenak eta atseginak elkarbizitzarako.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Erabilera bakarreko eremuak.
- Oinezko bideen gabeziak segurtasun eza sortzen dutenak.
- Gabeziak garraio publikoan gaueko ibilbideak mugatzen dituztenak.

### **Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:**

1. Jolas eremuen segurtasuna eta ikusgarritasuna hobetu umeen zaintza errazteko.
2. Argiztapena hobetu. Foko gehiago jarri argiztapena orekatzeko. Egungo argiztapenak sortzen du gehiegizko argitasuna puntu batzuetan eta iluntasuna tarteko eremuetan.
3. Puntu beltzen zerrenda berritzea eta osatzea genero ikuspegitik.
4. "Avanzada" azpiko tunelak itxi.
5. Pasabidearen margoa (gorria eta zuria) kendu ikusgaitasuna murrizten duelako.
6. Bilboko konexioa egiten duen garraio publikoaren ordutegiak luzatzeko aukera aztertu eta kudeatu.

## 6.1

# Ikea Mendibile

Eremu honen konplexutasunak azterketa sakona eskatzen du segurtasun eta irisgarritasun gaitan. Kota aldaketa handiek eta kaleen tipologiek zoko ilun eta ikusezin asko sortzen ditu: tunelak, eskilarak, espaloi zatituak eta ikusgaitasun gutxiko guneak, horma altuak, garajeen sarrera aldapak, etab. Eremu honetan puntu ahul asko daude eta beharrezkoa da zehaztasunezko analisia egitea.

**Proposamena:**

Ibilbideen eta irisgarritasunaren azterketa sakona segurtasun gaitan.

## 6.2

# Ondiz

Ondiz auzoa erdigunearen gainean kokatua dago. Auzo erdilantatiarra da eta Txorierri auzoarekin lotunea osatzen du. Erdigunetik oso aldendua ez egon arren urrun somatzen da ibilbideen ezaugarrien ondorioz: errepide huts luzeak eraikinik gabekoak, tarteko aparkaleku handia, gaueko argiztapenaren gabeziak eta auzo barruko oinezko bide etenak. Guzti honek eragiten du ibilbide ez seguru bezala ulertzea eta irisgarritasuna murriztea.

**Proposamenak:**

- Ibilbidearen argiztapena hobetzea.
- Garraio publikoaren sarea indartzea eta hobetzea.
- Oinezkoen bideak egokitzea eta seinale egokiak jartzea.

# 7

## PAISAIA ETA INGURUAREKIN HARREMANA

Inguru naturalari bizkarra ematen dioten hiriak isolamendua eta alienazioa sortzen dute, ahaztarazten digute hiriak baliabide naturalen menpekoak direla bizirauteko. Testuinguru globalizatuaren ondorioz kontsumitzen ditugun baliabideak kanpotik ekarri arren ezin ditugu ahaztu, besteak beste, natura ustiatzearen mugak, bere kalitatezko ingurugiroaren beharra eta naturaren onurak osasun fisiko eta mentalean.

Natur eremuarekin harremana, baliabideen eskuragarritasuna eta landa eremuen edo errekaen babesaren premiazkoak dira kalitatezko garapen orekatua lortzeko hiri lurretan, eta ingurumenerako eta gizarterako onura handiak ditu.

Analisirako paisaiaren kontzeptu zabala eta multidimentsionala integratu beharko dugu, hiri espazio guztiak biltzen dituen eta hainbat balore gordetzen dituen (naturalak, estetikoak, historikoak, sinbolikoak, sozialak, produktiboak, erreproduktiboak eta kulturalak). Balore hauek zerikusia dute memoria ikusgarriarekin eta ikusezinarekin, gure inguruaren pertzepzioarekin, identitate kolektiboaren eraikuntzarekin eta gizarte kohesioarekin, espazio publikoa okupatzeko moduetan eta publiko eta pribatuaren arteko harremanetan. Udal eremuaren ondarea osatzen dute, baliabide propio eta banaezinak dira, eta erabakigarriak dira identitatearen eta memoriaren eraikuntza kolektiboan.

Ondarea aztertu behar dugu; mantentzen dena, berreskuratu dezakeguna eta galdu dena; gaurko eta etorkizuneko inpakto negatiboak aztertu behar ditugu; eta indarguneak aurkitu etorkizunerako erabaki egokiak aukeratzeko. Estrategiak definitzea beharrezkoa izango da paisaia hobetzeko ekintzak zehazteko, baliabideen eskuragarritasuna bermatzeko eta hiri lurren eta eremu naturalen arteko harremana hobetzeko.

Leioak espazio libre zabalak ditu, asko kalitate eta potentzial paisajistiko handikoak. Lurraldearen lehenengo hurbilketan nabarmena da iparraldeko muga "berdea" udalerriko kota altueneatan eta hegoaldeko muga "urdina" itsasadarrean, baina kalitate paisajistiko handikoak izan arren ez dute konexio handirik hiri eremuarekin. Arlo honetan, kudeaketa da gako nagusia (administrazioen artekoa) eta egiteke dago. Natur eremuen zaintza lehenengo pausua izan daiteke Leioako espazio libreen sarea konektatzeko eta egonkortzeko, itsasadarra eta mendia konektatuko duten korridore berdeekin.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Itsasadarreko erreka-arekiko deskonekzioa.
- Babesik gabeko landa eremuak.
- Gabeziak udalerriko espazio libreak konektatzen dituzten oinezko bideetan eta bidegorrien sarean.

**Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:**

1. Espazio naturalak babestu eta suspertu.
2. Landa eremuak babestu.
3. Leioako espazio libreen erabilera indartu, kudeatu eta ahalbidetu.
4. Espazio libreen arteko oinezkoen eta bidegorrien kalitatezko sarea osatu espazio libreen benetazko sarea osatzeko.
5. Lamiakoko kaia suspertzeko eta erdigunearekin konektatzeko aukerak aztertu eta kudeatu beste administrazioekin batera.

## 7.1

# Peruri

Peruri auzoak iparraldeko muga “berdean” kokatzen da eta Leioako landa eremu historikoa da. HAPO berriak ezaugarri hauek babestu eta finkatu beharko lituzke raudiarekin eta baita kudeaketaren biez ere. Izan ere, landa izaera mantendu duen auzo bakarrenetakoa baita.

**Proposamenak:**

- Xehetasunezko antolaketaren bidezko eraikuntzen mugaketa; eraikin berrien eraikuntza mugatuko duena; eta neurriak landa eremuaren izaera naturala eta ingurua babesteko.
- Ondarea osatzen duten paisaia elementuak katalogatu eta babestu.

## 7.2

# Lamiako

Lamiako auzoa udalerriko hegoaldean kokatzen da itsasadarraren ondoan, eta barne hartzen du oinezkoen eta bidegorrien ibilbide metropolitarra (beste udalerriek itsasoarekin konektatzeko eraberritzen ari dutena). Lamiakoko kaiaren eraberritzeak aukera ematen du udalerrria konektore “berde” metropolitarrarekin lotzeko eta hiri eremua naturgunearekin lotzeko.

### **Proposamenak:**

- Ondarea osatzen duten paisaia elementuak katalogatu eta babestu.
- Lamiakoko Kaiaren eraberritzea.
- Beste administrazioekin kudeaketa ibilbide metropolitarra eraberritzeko.
- Hirigunea itsasadarrarekin lotzeko neurriak hartu.
- Orube hutsak eraberritu ibilbidean integratzeko naturalizazio prozesuen bidez.
- Eremu osoaren naturalizazioa.
- Kalitatezko oinezkoen bidea eta bidegorriak itsasadarreko ibilbidean eta herriarekin lotunea diren eremuetan.
- B-711 errepidearen trafikoa murrizteko eta abiadura moteltzeko neurriak hartu.
- Eremua biguntzeko neurriak: egoteko gunek jarri, atsedenerako eremuak gehitu eta ingurugiro gaietan hezteko ibilbideak edo/eta ibilbide historikoak sortu memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ingurugiroarekiko sentsibilizazioa lantzeko.

# 8

## PARTE HARTZEA

Asko dira parte hartze herritar aktiboaren garrantzia eta balioa erakutsi diguten ikerketak eta lanak. EHUko Parte Hartuz ikerketa taldearen iritziz parte hartze herritarren egonkortzea errealitate bat da gaur egun gure lurraldeetan; jaso dituzten datuen arabera “gero eta gehiago dira parte hartze prozesuak martxan jartzen dituzten herriak eta askotariko metodologiekin”.

Gure inguruan jaso diren esperientziek parte hartzea proiektu eta programa politikoetan erabiltzeko arrazoiak indartzen eta baliozkotzen dituzte. Arrazoi nagusiak ondoko zerrendan jaso ditugu: instituzioen irudia eta babes soziala hobetzen du eta demokrazioaren legitimitatea indartzen du; politiken eraginkortasuna handitzen du; erabaki instituzionalak demokratizatu egiten ditu; botere espazioetan sortzen diren diskriminazioa eta aukera berdintasun eza gainditzen laguntzen du interes kolektiboen alde; tokiko alternatibak eskaintzen ditu testuinguru sozio-ekonomiko konplexu honetarako.

Dena den, parte hartzeak konpromezu politiko eta tekniko jarraia eskatzen du eta beharrezkoa da aldez aurretik ongi ezagutzea prozesu mota hauen ardurak eta inplikazioak. Proiektuetan sartzea aldez aurreko hausnarketarik gabe arrisku handia dakar eta ondorio latzak izan ditzake proiektuen eraginkortasunean eta herritarrek duten pertzepzioan politika publikoen aurrean. Lehentasuna izan behar du agenda politikoan eta gardentasunarekin eta estrategia informatibo egokiekin batera landu behar da herritarren informazio eskubidea eta beharra bermatzeko.

Laburbilduz, parte hartzeak konpromezua eskatzen du eta jarrera irekia herritarren ametsak eta desirak jasotzeko eta elkarrekin lan egiteko. Entzuteko gaitasuna premiazkoa da adostasunak lortzeko eta hiri eraldaketa egokiak lortzeko.

Arlo honen barruan aurkitu ditugun **gabeziak** ondokoak dira:

- Gardentasun falta politika publikoetan.
- Herritarren mesfidantza orokortua udal konpromisoarekiko parte hartze herritarreari dagokionez.
- Bitarteko falta kalitatezko parte hartze herritarra sustatzeko.

### **Proposamen orokorrak Leioako hirigintza antolaketarako:**

1. Estrategia berriak diseinatu politika publikoen komunikazioa, informazioa eta gardentasuna hobetzeko.
2. Udal talde politikoaren eta teknikoaren formazio eta sensibilizazio kanpainaren

diseinua parte hartzearen inguruan; onurak, mugak eta ardurak.

3. Udal talde politikoaren eta teknikoaren formazio eta sensibilizazio kanpainaren diseinua parte berdintasun arloan zeharkakotasuna lantzeko.

4. Parte hartze herritar aktiboa agenda politikoan arduraz integratzeko adostasuna.

5. Sailen arteko harremanen kudeaketarako prozesua abiatu barne komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko; berdintasun arloko zeharkakotasuna bermatzeko; gardentasuna handitzeko; parte hartzean bateraezintasunak eta ginkargak saihesteko; eta estrategia parte hartzaileak aurreikusteko.

6. Formazio espezifikoa herritarrentzat hirigintza genero ikuspegitik aztertzeke tresnetan sakontzeko.

7. HAPOaren parte hartzea indartzeko asmoz ondoko estrategiak proposatzen dira: aurrez aurreko foroa osatu dokumento honen prozesuan parte hartu dutenekineta udal web orrian lehi bat ireki informatiboa eta parte hartzailea. Foroan aukeratu beharko dira komunikazio estrategia egokienak udal taldeko komunikazio arloaren laguntzarekin.

**Nork:**

hiri. Dunak taldea



Norekin:



Norentzat:



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA